


2023

Instalazio fotovoltaikoa

auzokideen erkidegotan



EDUKIA

*	FLUXU-DIAGRAMA	4
00.	Sarrera	6
01.	Autokontsumorako instalazioa	8
02.	Nor da instalazioaren sustatzailea?	10
03.	Autokontsumo motak	12
	Autokontsumo motak	13
	Autokontsumo motak, modalitatearen arabera	18
04.	Beharrezko gehiengoa	20
05.	Eskaintzaren kudeaketa	22
06.	Bideratzaile juridikoa	24
07.	Onarpena	26
08.	Dirulaguntzak eta izapide administratiboa	28
	Laguntzen eskaera	29
	Izapide administratiboa	29
09.	Instalazioa eta mantentze-lanak	32
	Instalazioaren muntaketa	33
	Mantentze-lanen kontratua	34
10.	Autokontsumoaren hasiera	36
11.	Glosarioa	38
	Energiaren oinarritzko kontzeptuak	39
	Autokontsumoaren figurak	42
12.	Bibliografia	44
	I. eranskina	46
	II. eranskina	48
	III. eranskina	50
	IV. eranskina	52
	V. eranskina	53



AUTOKONTSUMORAKO INSTALAZIOA

NOR DA INSTALAZIOAREN SUSTATZAILEA?

AUTOKONTSUMO MOTA

BEHARREZKO GEHIENGOA



KONTSUMITZAILE BAKARRA

Banakako autokontsumoa auzokideen erkidegotan
Instalazioa: Erabilera pribatiboko elementu komuna

Erkidegoaren 1/3ak alde bozkatzea

Banakako autokontsumoa familia bakarreko etxean
Instalazioa: Elementu pribatua



FAMILIA BAKARREKO HAINBAT ETXE

Autokontsumo partekatua familia bakarreko etheen artean
Instalazioa: Erabilera erkideko elementu pribatua

Autokontsumo partekatua gunekomunetarako
Instalazioa: Elementu komuna

Erkidegoaren gehiengo soilak alde bozkatzea



AUZOKIDEEN ERKIDEGO BAT

Etxebizitzentzako autokontsumo partekatua
Instalazioa: Elementu komuna

Erkidegoaren 1/3ak alde bozkatzea


Kontsumoko gunetarako eta etxebizitzentzako autokontsumo partekatua
Instalazioa: Elementu komuna

Erkidegoaren gehiengo soilak alde bozkatzea



**FAMILIA BAKARREKO HAINBAT ETXE
AUZOKIDEEN ERKIDEGO BAT
HAINBAT AUZOKIDEEN ERKIDEGO**

Autokontsumo partekatua Energia Komunitatean (TEK)
Instalazioa: TEKaren jabetza



00

Sarrera

Energia-eredu jasangarri baterako trantsizioa erronka handia da; energiaren erabilera efizientea, jatorri berriztagarriko energiaren sustapena eta energia-subiranotasuna mahai gainean dauden erronkak dira.

Testuinguru horretan, autokontsumoa herritar guztiengana hurbiltzeko beharra antzematen da. Autokontsumo-modalitateek gaitasun handia dute hura aplikatu nahi duten pertsonen ezaugarrietara eta beharretara egokitzeko. Horregatik, gida honen helburua da auzokideen erkidegoetan autokontsumo kolektiboa sustatzea, hura aplikatzeko jarraitu beharreko urratsak zehaztuz.

Horretarako, gida honetan estalkiko instalazioei buruz hitz egiten da, lurzoruaren okupazio handiagoa saihestuz, nahiz eta instalazioak eraikuntzen lursailetan ezar daitezkeen. Era berean, panel fotovoltaikoak instalatzeko jarduketak fasez fase deskribatuta daude, interesa duen erabiltzaileari ahalik eta gehien laguntzeko. Energia-trantsizioa hobeto ezagutzera animatzen zaitugu, orain inoiz baino gehiago.

Sustatzailea:

Debegesa (www.debegesa.eus)

Diseinua eta maketazioa:

Chroma (www.chroma.eus)

Eduki narratiboa:

Debegesa

Edinor (<https://edinor.eus/>)

Sandra Arroyo Robledo. Abokatu. (<https://sandra-arroyo-robledo.negocio.site/>)

Finantzatzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundia Ingurumen eta Obra Hidraulikoak Departamentua (<https://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/medio-ambiente-y-obras-hidraulicas>)

Data:

2023ko maiatza

() Gida honen helburua da autokontsumo kolektiboarekiko herritarren, enpresen eta erakunde publikoen interesa sustatzea. Emandako erantzunek, beraz, orientatzeko baino ez dute balio, eta ezin dira indarreko araudiaren interpretazio ofizialtzat hartu.*

01

Autokontsumorako
instalazioa

ZER DA?

Autokontsumo elektrikoko instalazio bat kontsumo propioarako energia berriztagarria ekoizteko gai den instalazioa da, sorkuntza berriztagarriko beste sistema batzuk instalatuz. Teknologia ohikoena eguzki-teknologia fotovoltaikoa da.

ZER SUPOSATZEN DU?


Autokontsumoak faktura elektrikoan aurreztea dakar, baina baita sarean independentzia handitzea ere, eta, beraz, tarifa elektrikoaren prezioaren aldaketekiko mendekotasun txikiagoa, beharrezkoa den kontsumoaren zati bat autokontsumo-sistematik datorrelako.

ZER AHALBIDETZEN DU AUTOKONTSUMOAREN ARAUDIAK?

Autokontsumoaren 244/2019 Errege Dekretuaren araudiak ahalbidetzen du sistema horiek autokontsumo kolektiboko erregimenean instalatzea; horri esker, hainbat kontsumitzaile autokontsumorako instalazio berberera lotzen dira eta energia berriztagarria trukutzen dute.

AUTOKONTSUMO FOTOVOLTAIKOAREN SISTEMA BATEK ZEIN OSAGAI DITU?

Autokontsumo fotovoltaikoaren sistema bat eguzki-panelek edo plaka fotovoltaikoek osatzen dute, baina, horiez gain, beste elementu batzuek ere osatzen dute: euskarriek, inbertsoreek, konektoreek, kableatu elektrikoak, segurtasun-ekipoek eta lur-konexioko ekipoek, eta, aukeran, bateriek.




Modulu fotovoltaikoa: argia edo eguzkiaren energia energia elektriko zuzen bihurtzen dute

Bateria: energia biltegitratzen du (aukeran)

Inbertsorea: elektrizitate zuzena alternoan

02

Nor da instalazioaren
sustatzailea?



Autokontsumorako instalazio bat egiterakoan, garrantzitsua da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- **Kontsumitzaile kopurua:** kontsumitzaile kopuruaren arabera, banakako autokontsumoa edo kolektiboa has daiteke.
- **Instalazioa non egin daitekeen:** estalkiak erabilgarria izan behar du eta orientazio egokiarekin.
- **Instalakuntza-azaleraren jabea nor den:** instalazioa egiteko, beharrezkoa da instalazioa erabiltzeko eskubidea izatea (bai titularra izateagatik, bai zortasun baten bidez,

etab.)Beraz, autokontsumoan parte hartu nahi duenaren arabera, eskuragarri dagoen estalki erabilgarria eta haren jabea kontuan hartuta, hainbat kasu ematen dira:

- **Kontsumitzaile bakarra:** etxebizitza bakar batek baino ez du parte hartu nahi, dela auzokideen erkidego batean, dela familia bakarreko etxeetan.
- **Familia bakarreko hainbat etxe:** familia bakarreko hainbat etxek parte hartu nahi dute.
- **Auzokideen erkidego bat:** auzokideen erkidego batean gutxienez 2 etxebizitzek parte hartu nahi dute. Autokontsumo hori erabilera pribatibokoa izan daiteke (etxebizitzaren kontsumorako), erabilera erkidekoa (eraikinaren guneko komunitateko kontsumorako), edo biak batera.
- **Familia bakarreko hainbat etxe, auzokideen erkidego bat eta/edo auzokideen erkidego bat baino gehiago:** multzo horiek guztiek autokontsumo partekatuan parte har dezakete.

Kasu horietan, bi etxebizitza mota aipatzen dira: familia bakarreko etxeak eta auzokideen erkidegoak:

- **Familia bakarreko etxea:** eraikin horietan familia-unitate bakarra bizi da; beraz, kontsumitzaile bakarra dago, eta estalki propioa dute.
- **Auzokideen erkidegoak:** higiezin horiek hainbat etxebizitzaz osatuta daude, eta etxebizitza horiek lursail bera eta eremu komunak partekatzen dituzte. Kasu honetan, hainbat kontsumitzaile daude estalki komun baten azpian.

03

Autokontsumo
motak

1. KONTSUMO MOTAK



BANAKAKO AUTOKONTSUMOA

Banakako autokontsumoa da ekoizpen-instalazioari edo -instalazioei kontsumitzaile bakarra lotuta duena. Banakako autokontsumoan kontsumitzaile bakar batek har dezake parte, adibidez:

- Familia bakarreko etxe batek.
- Etxebizitza batek auzokideen erkidego baten barruan.

Banakako autokontsumoa auzokideen erkidegotan

Autokontsumoa non kontsumitzaile bakarra dagoen instalazioarekin lotuta, eta instalazio hori erkidegoaren eraikinaren estalkian egiten da. Beraz, erabilera pribatiboko elementu komuntzat jotzen da.

BANAKAKO AUTOKONTSUMOA AUZOKIDEEN ERKIDEGOTAN

	**	Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea			1. Erkidegoaren estalkiaren erabilera 2. Instalazioa elementu komuntzat hartuko da
Bideratzaile juridikoa		Inolako bideratzaile juridikorik sortu beharrik gabe, pertsona fisiko gisa laguntzak eskatzea	
Instalazioaren kostua	4		Instalazioaren kostu handiagoa, instalazioaren tamaina txikiagatik eta mantentzea eskala-ekonomiaren aprobetxamendurik gabe
Dirulaguntza	3	Dirulaguntza banakako autokontsumoko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	2	Gauzatze-epe laburra	
Estalkia			Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea			Beharrezkoa da erkidegoaren eta jabe interesdunaren artean akordio bat lortzea eta sinatzea.
Akordioa			Beharrezkoa da erkidegoaren eta jabe interesdunaren artean akordio bat lortzea eta sinatzea.
Inbertsioa			Banakako inbertsioa

(**) Ezaugarria gainerako soluzioekin alderatzeko kalifikazio-zutabea. Baliorik txikiena kalifikazio hobeari dagokio.

Banakako autokontsumoa familia bakarreko etxean

Autokontsumoa, non kontsumitzaile bakarra dagoen instalazioarekin lotuta, eta instalazio hori estalki propioa duen familia bakarreko etxe baten estalkian egiten da. Elementu pribatiboa da.

BANAKAKO AUTOKONTSUMOA FAMILIA BAKARREKO ETXEAN

	**	Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea		Instalazioaren jabea zara	Norberaren estalkiaren erabilera
Bideratzaile juridikoa		Inolako bideratzaile juridikorik sortu beharrik gabe, pertsona fisiko gisa laguntzak eskatzea	
Instalazioaren kostua	4		Instalazioaren kostu handiagoa, instalazioaren tamaina txikiagatik eta mantentzea eskala-ekonomiaren aprobetxamendurik gabe
Dirulaguntza	3	Dirulaguntza banakako autokontsumoko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	2	Gauzatze-epe laburra	
Estalkia			Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea		Ez da beharrezkoa	
Akordioa		Ez da energia banatzeko inolako akordiorik izapidetu behar, ezta erkidegoaren eta jabearen arteko akordiorik ere	
Inbertsioa			Banakako inbertsioa

AUTOKONTSUMO PARTEKATUA

Autokontsumo partekatua edo autokontsumo kolektiboa gertatzen da kontsumitzaile bat hainbat kontsumitzailearen talde batekoa denean, eta kontsumitzaile horiek, adostasunez, kontsumo-instalazioetatik hurbil eta horiekin lotuta dauden energia elektrikoaz elikatzen dira.

Autokontsumo partekatuan parte hartu nahi duten etxebizitzek ez dute zertan lotuta egon behar autokontsumitu nahi duten eraikinarekin; izan ere, eurengandik "hurbil" dagoen instalazio bat izan daiteke. Izan ere, banakako autokontsumoan ez bezala, sortutako energia instalazioari lotutako kontsumitzaileek ez dute berehala kontsumitzen.

Kasu honetan, instalazioa ez dago fisikoki kontsumitzailearen hornidura-gunera konektatuta, enpresa merkaturatzailea arduratzen da instalazioak kontsumitzaileen fakturan sortutako energiaren baliokidea kentzeaz. Enpresa merkaturatzaileek eman behar duten zerbitzu baten parte da.

(**) Ezaugarria gainerako soluzioekin alderatzeko kalifikazio-zutabea. Baliorik txikiena kalifikazio hobeari dagokio.

Kontsumorako instalazioetatik hurbil eta horiekin lotuta dagoen ekoizpen-instalaziotzat hartzen da, baldin eta:

1. Teknologia fotovoltaikoa soilik erabiltzen bada.
2. Garraio- eta banaketa-lineei konektatuta badago.
3. Kontsumitzaile elkartuengandik 2.000 metro baino gutxiagora badago. Erreferentziazat hartuko da neurtzeko ekipoen arteko distantzia oinplanoko proiektzio ortogonalean.

Baldin eta gutxienez bi kontsumitzaile badaude, autokontsumo kolektibo batean parte har dezakete, hala nola:

- Familia bakarreko etxeek.
- Auzokideen erkidego bateko etxebizitzek.

Kontsumitzaile batek autokontsumo partekatuko instalazio bat egin dezake hainbat egoeratan:

Autokontsumoa, non kontsumitzaile batzuk instalazioari lotuta dauden. Bertan, instalazioa familia bakarreko etxeen estalki bat edo batzuk aprobetxatuz egiten da.

Autokontsumo partekatua familia bakarreko etxeen artean

AUTOKONTSUMO PARTEKATUA FAMILIA BAKARREKO ETXEEN ARTEAN

	** Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea	Instalazioaren jabea zara	Norberaren estalkiaren erabilera
Bideratzaile juridikoa		Ondasun-erkidego edo bestelako tresna gisa laguntzak eskatzea
Instalazioaren kostua	2 Eskalako ekonomiaren aprobetxamendua, bai instalazio-prozesurako, bai mantentze-lanetarako	
Dirulaguntza	2 Dirulaguntza autokontsumo kolektiboko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	3 Batez besteko gauzatze-aldia	
Estalkia		Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea	Ez da beharrezkoa	
Akordioa		Beharrezkoa da interesdunen artean akordio bat lortzea
Inbertsioa		Instalazioari lotutako etxebizitzin inbertsio kolektiboa

(**) Ezaugarria gainerako soluzioekin alderatzeko kalifikazio-zutabea. Baliorik txikiena kalifikazio hobeari dagokio.

Autokontsumo partekatua
gune komunetarako

Autokontsumo partekatua, non instalazioarekin lotzen baitira jabeen erkidegoko gune komunetako kontsumoak.

AUTOKONTSUMO PARTEKATUA GUNE KOMUNETARAKO

		** Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea			1. Erkidegoaren estalkiaren erabilera 2. Instalazioa elementu komuntzat hartuko da
Bideratzaile juridikoa			Laguntzak eskatzea jabeen erkidegoaren bidez
Instalazioaren kostua	3		Instalazioaren kostu handiagoa, instalazioaren tamaina txikiagatik eta mantentzea eskala-ekonomiaren aprobeixamendurik gabe
Dirulaguntza	2	Dirulaguntza autokontsumo kolektiboko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	3	Batez besteko gauzatze-aldia	
Estalkia			Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea			Erkidegoko jabeen gehiengo soilak alde bozkatzea beharrezkoa da
Akordioa			Beharrezkoa da jabeen erkidegoko kideen artean akordio bat lortzea eta sinatzea
Inbertsioa			Inbertsio kolektiboa autokontsumoan parte hartzen dutenen artean

Autokontsumo partekatua etxebizitzetan kontsumitzeko

Autokontsumoa, non kontsumitzaile batzuk instalazioarekin lotuta dauden; instalazioa erkidegoaren eraikinaren estalkian egiten da, eta parte hartu nahi duten etxebizitzetan kontsumoan aurrizteko erabiltzen da.

AUTOKONTSUMO PARTEKATUA ETXEBIZITZETAN KONTSUMITZEKO

		** Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea			1. Erkidegoaren estalkiaren erabilera 2. Instalazioa elementu komuntzat hartuko da
Bideratzaile juridikoa			Laguntzak eskatzea jabeen erkidegoaren bidez
Instalazioaren kostua	3		Instalazioaren kostu handiagoa, instalazioaren tamaina txikiagatik eta mantentzea eskala-ekonomiaren aprobeixamendurik gabe
Dirulaguntza	2	Dirulaguntza autokontsumo kolektiboko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	3	Batez besteko gauzatze-aldia	
Estalkia			Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea			Erkidegoko jabeen 1/3ak alde bozkatzea beharrezkoa da
Akordioa			Beharrezkoa da jabeen erkidegoko kideen artean akordio bat lortzea eta sinatzea
Inbertsioa			Inbertsio kolektiboa autokontsumoan parte hartzen dutenen artean

(**) Ezaugarria gainerako soluzioekin alderatzeko kalifikazio-zutabea. Baliorik txikiena kalifikazio hobeari dagokio.

Autokontsumo partekatua etxebizitzetan eta gune komunetan kontsumitzeko

Autokontsumoa, non kontsumitzaile batzuk instalazioarekin lotuta dauden; instalazioa erkidegoaren eraikinaren estalkian egiten da, eta gune komunen eta parte hartu nahi duten etxebizitzetan kontsumoan aurrezteko erabiltzen da.

AUTOKONTSUMO PARTEKATUA ETXEBIZITZETAN ETA GUNE KOMUNETAN KONTSUMITZEKO

		** Abantailak	Desabantailak
Instalazioaren jabea			1. Erkidegoaren estalkiaren erabilera 2. Instalazioa elementu komuntzat hartuko da
Bideratzaile juridikoa			Laguntzak eskatzea jabeen erkidegoaren bidez
Instalazioaren kostua	3		Instalazioaren kostu handiagoa, instalazioaren tamaina txikiagatik eta mantentzea eskala-ekonomiaren aprobetxamendurik gabe
Dirulaguntza	2	Dirulaguntza autokontsumo kolektiboko erregimenerako bizitegi-sektorean	
Gauzatze-denbora	3	Batez besteko gauzatze-aldia	
Estalkia			Estalki partekatua erabiltzea. Beharrezkoa da eskuragarri dagoen azalera erabilgarria egiaztatzea
Alde bozkatzea			Jabeen erkidegoaren gehiengo soilak alde bozkatzea beharrezkoa da
Akordioa			Beharrezkoa da jabeen erkidegoko kideen artean akordio bat lortzea eta sinatzea
Inbertsioa			Inbertsio kolektiboa autokontsumoan parte hartzen dutenen artean

(**) Ezaugarria gainerako soluzioekin alderatzeko kalifikazio-zutabea. Baliorik txikiena kalifikazio hobeari dagokio.

ENERGIA- KOMUNITATEA

Energia-komunitateak autokontsumo kolektiboko moduak dira; bertan, parte-hartzaileek ekoizten duten energiaz baliatzen dira.

IDA Eren (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua) arabera, energia-komunitateak Estatuko pertsona-, enpresa- edo entitate-taldeak dira, eta hauek, modu irekian eta borondatez, hurbiltasun geografikoa dela-eta, erakunde juridiko bat eratzea erabakitzen dute. Erakunde juridiko horren helburua energia-efizientziako prozesu berberak partekatzea da.

Beraz, komunitate horien helburu nagusia da sorkuntza-instalazio berberetz edo erkidego horren inguruan kokatutako beste neurri batzuek kolektiboki etekina ateratzea, elektrizitatea edo energia termikoa sortzeko gaitasuna aprobetxatzea, energia-efizientzia hobetzea edo mugikortasun jasangarriko sistemak garatzea —etorkizunean eskariaren kudeaketa garatzeko potentziala izango dutenak—; eta funtsezkoa da energia hori berriztagarria izatea.

Tokiko erkidegoen abantaila handienetako bat beren sarbidea demokratizatzea da. Berdin dio zein jarduera egiten den edo haren izaera publiko-pribatua zein den. Guztiak izan daitezke autokontsumo kolektiboko proiektu komun baten parte eta haren ezaugarri guztiez baliatu.

Hona hemen profil ohikoenetako batzuk:

- Familia bakarreko etxeak
- Auzokideen erkidegoak
- Tokiko dendak eta ETEak
- Administrazio publikoa

2. AUTOKONTSUMO MOTAK, MODALITATEAREN ARABERA

Autokontsumoaren modalitateari erreparatuz gero, bi talde bereiz daitezke: soberakin gabeko autokontsumoa eta soberakinak dituen autokontsumoa.

SOBERAKINIK GABEKO AUTOKONTSUMO HORNIDURA MODALITATEA

Modalitate horietan isurketaren aurkako mekanismo bat instalatu beharko da, energia-soberakina garraio- edo banaketa-sarera ez eramateko. Isurketaren aurkako mekanismoa instalazioari dagokio eta isuritako energia edo soberakina zero izateaz arduratzen da. Beraz, enpresa merkaturatzaileak ezin ditu soberakin horiek konpentsatu. Kasu horietan, ez da beharrezkoa sare elektrikorako sarbidea eta konexio-puntua eskatzea.

SOBERAKINAK DITUEN AUTOKONTSUMO HORNIDURA MODALITATEA

Modalitate horietan, hurbileko ekoizpen-instalazioek eta kontsumo-instalazioei lotutakoek, autokontsumorako energia hornitzeaz gain, soberako energia sartu ahal izango dute garraio- eta banaketa-sareetan. Soberakinak dituen autokontsumoko horniduraren modalitatea honela banatzen da:

Soberakinak konpentsatzera bideratutako modalitatea

Modalitate honekin bat egingo dute soberakinak dituzten autokontsumorako hornidura-kasuak, kontsumitzaileak eta ekoizleak mekanismo hori baliatzea erabakitzen badute. Kasu horietan, kontsumitzaileak konpentsazio bat jaso ahal izango du enpresa merkaturatzailearen aldetik faktura elektrikoan. Apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretua oinarri hartuta, honako baldintza hauek guztiak betetzen diren kasuetan bakarrik egin ahal izango da:

1. Energia primarioko iturria jatorri berriztagarrikoa bada.
2. Ekoizpen-instalazio elkartuen guztizko potentzia 100 kW-tik gorakoa ez bada.
3. Produkzioko zerbitzu osagarrietarako hornidura-kontratu bat egin beharko balitz, kontsumitzaileak hornidura-kontratu bakarra sinatu badu kontsumo elkarturako eta ekoizpen-kontsumo osagarrietarako enpresa merkaturatzaile batekin, errege-dekretu honen 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
4. Kontsumitzaileak eta ekoizle bazkideak autokontsumoko soberakinak konpentsatzeko errege-dekretu honen 14. artikuluan zehaztutako kontratu bat sinatu badute.
5. Ekoizpen-instalazioak ordainsari-araubide gehigarri edo espezifikorik esleituta ez badu.

Kompentsaziorik ez duen modalitatea soberakinekin

Talde honetakoak izango dira soberakinak dituzten autokontsumo-kasu guztiak, baldin eta ez badute betetzen konpentsaziorako hartutako modalitateko parte izateko baldintzaren bat, edo beren borondatez modalitate hori ez aukeratzea erabakitzen badute.

Modalitate honetako izapide administratiboaren prozesua konplexuagoa da.
[Ikus 8.2 atala](#)

04

Beharrezko gehiengoa

Autokontsumo-erregimenaren eta estalkiaren jabearen arabera, gainazala erabiltzeko baimena lortzeko beharrezkoak diren hiru gehiengo mota bereiz daitezke.

Argitu beharra dago plaka fotovoltaikoak instalatzeko baimena emateko beharrezkoa den gehiengoak berekin dakarrela estalkia erabiltzeko onarpena. Erabilera horrek bere gain hartu beharko ditu kalteen ondoriozko erantzukizuna eta mantentze-lanak. Jarraian azalduko den kasu bakar batean ere ez litzateke aipatutako teilatua lagako; kasu zehatz honetan, beharrezkoa izango litzateke jabeek aho batez onartzea.

Era berean, legeak ez du instalazio fotovoltaiko bat egiteko interesdunen gutxieneko mugarik ezartzen, eta "edozein jaberren eskariz" egin daiteke, hura onartzeko beharrezkoa den gutxieneko gehiengoari kalterik egin gabe.

Hiru egoera aurreikusten dira instalazio fotovoltaiko bat egitea onartzeko behar den muga aztertzean:

EZ DA INOLAKO GEHIENGORIK BEHAR

- Banakako autokontsumoa familia bakarreko etxean.
- Autokontsumo partekatua familia bakarreko etheen artean.
- Autokontsumo partekatua Energia Komunitatean.

ERKIDEGOAREN HERENAREN ALDEKO GEHIENGOA

- Banakako autokontsumoa auzokideen erkidegoan.
- Autokontsumo partekatua etxebizitzetan kontsumitzeko – Auzokideen erkidego bat.


GEHIENGO SOILA – BEHARREZKOA BOTOEN GEHIENGOA

- Autokontsumo partekatua gune komunitarako – Auzokideen erkidego bat.
- Autokontsumo partekatua gune komunitarako eta etheen kontsumorako – Auzokideen erkidego bat.

Azpimarratzekoa da gehiengo lortzeko orduan ez dela bertaratutakoen gehiengo bakarrik kontuan hartu behar; bozketa egin ondoren, falta diren jabeei jakinarazi behar zaie akta, eta horiek, 30 egun naturaleko epean, botoa eman ahal izango dute. Botoak ezezkoa izan beharko du berariaz; bestela, isiltasuna jabeen eta partaidetza-kuotaren gehiengo bikoitzari gehituko zaio.

05

Eskaintzaren kudeaketa



- Instalazioaren potentzia gomendatua.
- Instalazioaren urteko ekoizpena.
- Amortizazio-aldia.

INSTALATZAILEAREN BISITA AZKEN ESKAITZARAKO

Instalazioa egingo dela erabaki ondoren, eta instalazio fotovoltaikoa zehazte aldera, beharrezkoa da enpresa instalatzailearen eskaintza izatea. Normalean, eskaintza kudeatzeko fasea bi etapak osatzen dute. Lehenengoa, aurre-azterketa bat eskatzea da, eta bigarrena, berriz, aditu espezializatu baten bisita tekniko bat.

AURRE-AZTERKETA FOTOVOLTAIKOA ESKATZEA

Lehenik eta behin, enpresa espezializatu bati aurre-azterketa fotovoltaiko bat egiteko eskatzen zaio, kokapenaren, estalkiaren ahalmenen eta instalatzeko dauden aukeren arabera.

Azterketa fotovoltaikoa egiteko ardura duen enpresak hainbat datu eskatuko dizkio interesdunari (kokapena, kontsumoak, faktura), eta lehen azterketa bat aurkeztuko dio. Bertan, honako zehaztapen hauek egiten dira:


Bigarrenik, batez ere tamaina handiko instalazioetan, eta enpresa instalatzailearen arabera, eguzki-plakak instalatzen espezializatutako profesional talde batek bisita tekniko bat egingo du, azken azterketa espezifikokoago bat egiteko, honako zehaztapen hauek kontuan hartuta:

- Etxebizitzaren kontsumoaren arabera erabilitako eguzki-panelen kopurua
- Teilatuan dagoen espazioa
- Zer motatako euskarriak behar dituzten panelek
- Teilatuaren orientazioa eta itzalak
- Inbertsorea non kokatuko den
- Kableak nondik joango diren
- Bezeroak zehaztutako aldaketa estetikoak

Informazio horrekin, enpresa instalatzaileak sistema fotovoltaikoaren diseinua nolakoa izan behar den jakinarazi beharko dio bezeroari, etxebizitzaren energia-beharrak asetzeko, baita instalazioa egiteko behar den inbertsioa zein izango den ere.

06

Bideratzaile juridikoa



Eredu juridikoak profesional edo sozietate batek jarduera ekonomiko bat gauzatzeko aukeratzeko duen legezko modalitateari egiten dio erreferentzia. Zerga-eta kontabilitate-betebeharrei, Gizarte Segurantzako afiliazioari eta hirugarrenen erantzukizunari eragiten die. Eredu juridiko asko daude, eta auzokideen erkidegoetan eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatzeko egokienak honako hauek dira:

- Irabazi-asmorik gabeko elkarteak
- Sozietate kolektiboa
- Ondasun-erkidegoa
- Sozietate kooperatiboa
- Jabeen erkidegoa

Hala ere, ez da beti bideratzaile juridiko berri bat eratu behar. Bizitegi-konsumitzaile batek pertsona fisiko gisa eska ditzake laguntzak, edo, are gehiago, auzokideen erkidego batean autokontsumo partekaturako instalazio fotovoltaiko bat ezarriz gero, jabeen erkidegoaren moduko bideratzaile bat dagoenean, azken horrek laguntza horren eskatzaile gisa jardun dezake.

Hala eta guztiz ere, aktibo energetikoak batera partekatu eta kudeatuko dituen talde bat sortzeko orduan —hala nola Energia Komunitate bat eratzekoan—, interesgarria da eredu juridikoa aztertzea, dirulaguntzen artean aldea egon baitaiteke. Batzuetan, Administrazio Publikoek eta hirugarren sektoreak eratzen dituzten energia-komunitateek eta/edo instalazio fotovoltaikoek eta biltegiatze-instalazioek bizitegi-sektoreak baino laguntza handiagoa lortzen dute. Era berean, laguntza horiek handitu egiten dira banakako erabilerarako instalazio bat egiteko beharrean autokontsumo kolektiboko bat egiteko erabiltzen direnean.

07

Onarpena

Erkidego batean instalazio fotovoltaiko bat egitea onartzeko, bilera bat egin behar da proiektuari buruzko gaiak jorrazteko (aurrekontua, eskaintzaren baldintzak, instalazioaren kokapen fisikoa, pertsona interesdunak eta antzekoak); gai horiek behar bezala jaso behar dira dagokion aktan.

Akta bilera jakin batean izandako gertakariak, konbentzioak, eztabaidak edo hartutako erabakiak biltzeko dokumentua da. Dokumentu mota horren helburu nagusia da arestian aipatutako gertakari horiek jasota uztea eta erabakitakoari balioa ematea.

Bileran landu diren alderdi guztiak behar bezala jaso behar dira bileraren aktan. Gainera, akta hori eraikinaren akta-liburuan sartu beharko da.

Jabeek ados egon behar dute ondorengo puntu hauetan, gutxienez. Puntu horiek guztiak dokumentu idatzi eta sinatuan jaso behar dira:

- Eguzki-plakak instalatzeko espazio komunitario bat erabiltzeko akordioa.
- Elementu komunitario kalteak onartzeari buruzko akordioa.
- Parte-hartze ekonomikoari buruzko akordioa.
- Sortutako energia banatzeko akordioa.
- Banaketa-koefizientearen akordioa (banaketa-koefizienteak dira autokontsumo partekatua edo sareko instalazio bati lotutako parte-hartzaile bakoitzari dagokion ordu-energia garbia jakiteko aukera ematen dutenak. Banaketa-koefiziente horrek kontsumitzaile parte-hartzaileek sinatutako akordioan jasotako balioak izango ditu. Era berean, kontsumoak irakurtzeaz arduratzen den energiaren enpresa banatzaileari jakinarazi beharko zaizkio).
- Altak eta bajak kudeatzeko moduari eta ondorioei buruzko akordioa (elementu pribatiboen titulartasuna aldatzen denean).

AKTA-EREDUAK

Instalazio fotovoltaikoaren autokontsumo kolektiboa egin nahi denean, planteatutako soluzioaren eta instalazio fotovoltaikoaren erabileraren arabera, dagokion akta zehaztu behar da hori onar dadin. Prozesu hori errazteko, txosten honek hiru akta-eredu biltzen ditu, besteak beste, aurreko atalean aipatutako puntu guztiak jasotzen dituztenak. Hiru akta-eredu horien adibideak txosten honen eranskinetan azaltzen dira:

- **Akta-eredua, instalazio fotovoltaikoaren azpiegitura komunaren instalazioa onartzekoa (erabilera erkiderako).** Instalazio fotovoltaikoak sortutako energia eraikinaren gune komunitario kontsumoan energia aurrezteko erabiliko da. (I. eranskina)
- **Akta-eredua, instalazio fotovoltaikoaren azpiegitura-instalazioak onartzekoa (erabilera pribatiboa).** Instalazioak sortutako energia jabeen erkidegoko etxebizitza batzuen kontsumoan energia aurrezteko erabiliko da. (II. eranskina)
- **Akta-eredua, instalazio fotovoltaikoaren azpiegitura komunaren instalazioa onartzekoa (erabilera erkiderako) /eta hainbat jaberan erabilera pribatiborako).** Instalazio fotovoltaikoak sortutako energia eraikinaren gune komunitario eta jabeen erkidegoaren etxebizitzetako kontsumoan energia aurrezteko erabiliko da. (III. eranskina)

08

Dirulaguntzak eta izapide
administratiboa

IDAE izango da dirulaguntzen koordinazioa eta jarraipena egiteko ardura izango duen erakundea, baina dirulaguntzen kudeaketa autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek egingo dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, EEE (Energiaren Euskal Erakundea) da laguntzak kudeatzeaz arduratzen den organoa.

1. LAGUNTZEN ESKAERA



Laguntzak eskatzeko, kontsumitzaileak ez du inolako izapiderik egin beharko, salbu eta baimen sinatua eman enpresa instalatzaileari honek laguntza-eskaera egin dezan kontsumitzailearen izenean. Instalatzailea arduratuko da memoria teknikoa eta instalazio hori egiteko behar den aurrekontua autonomia-erkidego bakoitzean dagokion organoari aurkezteaz.

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua (IDAE)

Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua EPE bat da eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikitako erakundea da, Energiaren Estatu Idazkaritzaren bitartez, eta organikoki honen mende dago.

Espainiak energia-efizientziaren hobekuntzan, energia berriztagarrietan eta karbono gutxiko beste teknologia batzuetan hartu dituen helburuak lortzen laguntzea du helburu. Hori da bere jardueraren esparru estrategikoa.

<https://www.idae.es/>

Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

Energiaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren energia-agentzia da, eta honako eginkizun hauek ditu:

- Euskadiren Energia Estrategiak proposatzea, honako irizpide hauen arabera: hornidura bermatzea, kostuen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta garapen teknologikoa.
- Haien garapenean aktiboki parte hartzea eta bertan zehaztutako helburuak lortzen laguntzea.
- Horretarako, Eusko Jaurlaritzari zerbitzua ematen dio, energiaren eta geologiako eta meatzaritzako baliabideen arloko jarduketak garatzen ditu eta proiektuetan parte hartzen du, enpresak eta erakundeak inplikatur. Gainera, bere estrategiak gidatzen dituzten balioak eta mezuak zabalitzen ditu gizartean.

<https://www.eve.eus/?lang=es-ES>

2. IZAPIDE ADMINISTRATIBOA

Behin betiko eskaintza onartu eta dagozkien laguntzak lortu ondoren, sistema fotovoltaikoa 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera legeztatu behar da, eta horrek 1 eta 2 hilabete artean iraun dezake. Prozesu hori, oro har, enpresa instalatzaileak edo izapideak egiteko ardura duen energia-kudeatzaileak egiten du. Autokontsumo motaren eta bere modalitatearen arabera, izapide batzuk aldatu egingo dira:

1	Instalazioaren diseinua
2	Sartzeko eta konektatzeko baimenak Abalak edo bermeak
3	Ingurumeneko eta onura publikoko baimenak
4	Aurretiatzko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena
5	Obra-lizentzia
6	Instalazioa egikaritzea
7	Hasierako ikuskapena eta aldizkako ikuskapenak
8	Instalazioaren eta/edo obra-amaieraren ziurtagiria
9	Ustiapenaren baimena
10	Sarrera-kontratua
11	Zerbitzu osagarrien energia hornitzeko kontratua
12	Jarduera-lizentzia
13	Soberakinen banaketa- eta konpentsazio-akordioa
14	Autokontsumoaren erregistro autonomikoan izena ematea
15	Energia elektrikoko autokontsumoaren erregistro autonomikoan izena ematea
16	Energia elektrikoa ekoizten duten instalazioen administrazio-erregistroan izena ematea
17	Ordezkaritza-kontratua merkatuan

SOBERAKINIK GABE	SOBERAKINEKIN	
	Konpentsazioarekin	Konpentsaziorik gabe
X	X	X
Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua eskatu	X	X
$P \geq 100\text{kW}$ bada eta/edo EAEn babes-eremuan badago soilik	$P \geq 100\text{kW}$ bada eta/edo EAEn babes-eremuan badago soilik	$P \geq 100\text{kW}$ bada eta/edo EAEn babes-eremuan badago soilik
Ez da beharrezkoa EAEn	EAEn $P \geq 100\text{ kW}$ bada soilik	EAEn $P \geq 100\text{ kW}$ bada soilik
Debabarreneko udalerrietan behar da	Debabarreneko udalerrietan behar da	Debabarreneko udalerrietan behar da
X	X	X
EAEn $P > 25\text{kW}$ bada soilik	EAEn $P > 25\text{ kW}$ bada soilik	EAEn $P > 25\text{ kW}$ bada soilik
X	X	X
EAEn $P \geq 100\text{ kW}$ bada soilik	EAEn $P > 100\text{ kW}$ bada soilik	EAEn $P > 100\text{ kW}$ bada soilik
X	X	X
	X	X
		X
Banaketa-akordioa	X	X
X	X	X
X	X	X
		X
		X


*P = Instalazio fotovoltaikoko potentzia

*CAU = Autokontsumo Kodea

Legeztatze-prozesua amaitu ondoren, enpresa instalatzaileak instalazio fotovoltaikoa muntatuko du.

09

Instalazioa eta
mantentze-lanak



1. INSTALAZIOAREN MUNTAKETA

PROZESUAREN URRATSAK

Enpresa instalatzaile batek instalazioa muntatzen du eraikinaren estalkian. Horrelako instalazioak egitean, kontuan izan behar da honakoa prozesu zehatza dela eta enpresa instalatzaileak ahalik eta kontu handienarekin egin behar duela, sistemaren funtzionamendu egokia bermatzeko eta etorkizunean arazoak saihesteko. Jarraian, plaka fotovoltaikoak muntatzeko beharrezko prozesuaren urratsak erakusten dira:

- Plaken euskarriak muntatu.
- Estalkia finkatu.
- Eguzki-plakak finkatu.
- Sistema eta inbertsorea elkar konektatu.
- Inbertsorea koadro elektrikora konektatu.
- Bateriak konektatu, biltegiatze-instalazioa bada.

Enpresa instalatzaileak behe-tentsiorako eta Instrukzio Tekniko Osagarriko erregelamendu elektroteknikoa jarraitu beharko du muntaia egiterakoan. Zehazki, ITC-BT-40 atala: Behe-tentsioa sortzen duten instalazioak, Estatuko Agentzia Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2022/03/16, behe-tentsiorako eta Instrukzio Tekniko Osagarriko erregelamendu elektroteknikoa.

2. MANTENTZE-LANEN KONTRATUA



Instalazio fotovoltaikoetarako mantentze-lanak eskaintzaren hasieran edo enpresa instalatzaileak muntaia amaitu duenean eskaini ohi dira. Mantentze-lan hori funtsezkoa da plaken eta gainerako osagaien balio-bizitza luzeagoa izan dadin eta, horrela, moduluen degradazioagatik energia-produktibitatearen galerak prebenitu eta ahalik eta errendimendu handienak lortzeko.

Bestalde, beti da onuragarria autokontsumo fotovoltaikoaren sistema instalatzeko eta mantentze-lanetarako konpainia bera izatea, enpresak ezagutza zuzena baitu eguzki-panelei eta azpiegituraren gainerako osagaiari buruz. Hortaz, badaki zein maiztasunez aztertu behar dituen elementu horiek eta zein xehetasunetan jarri arreta berezia.

Alde horretatik, energia-zerbitzuen enpresa ziurtatu batek honako mantentze-lan mota hauek egin behar ditu:

- **Mantentze-lan prebentiboa:** planifikatutako mantentze-lanak, etorkizunari begira arriskuak eta matxurak murriztea helburu dutenak.
- **Mantentze-lan zuzentzailea:** izenak iradokitzen duen bezala, matxura gertatu ondoren konpontzean datza.

MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA

Instalazio fotovoltaiko baten mantentze-lan prebentiboa sistemaren ikuskapen bisuala eta fisikoa egitean eta osagai guztiak maiz egiaztatzean datza. Enpresak jarduera horien aldizkakotasuna zehaztuko du, bere eskuliburu operatiboak eta eguzki-panelen eta gainerako ekipoen fabrikatzaileek gomendatutakoa oinarri hartuta.

Normalean, instalazio fotovoltaikoetan egiten den mantentze-lan prebentiboa honako hau izaten da:

Modulu fotovoltaikoak

- Eguzki-panelak garbitzea.
- Instalaturako potentzia egiaztatzea.
- Moduluen baldintzak berrikustea.
- Konexioen egoera egiaztatzea.
- Euste-egiturak gainbegiratzea.

Inbertsoreak

- Inbertsorearen funtzionaltasunak aztertzea.
- Abiatzeen eta geldialdien maiztasuna aztertzea.
- Babes elektrikoaren egoera egiaztatzea.

Kableak

Kableen, terminalen, lur-harguneen eta borneen doikuntzaren egoera mekanikoa behatzea, eta abar.

Urruneko monitorizazio-sistema


Pantailan azaldutako datuak (tenperatura, erradiazioa) eta informazioa igortzea eta jasotzea alda dezaketen transmisioaren baldintzak egiaztatzea.

MANTENTZE-LAN ZUZENTZAILEA

Matxura edo desdoikuntza baten ondorioz funtzionatzeari utzi dioten elementuen funtzionamendu egokia berreskuratzea da helburua. Mantentze-lan prebentiboetan ez bezala, akats bat hautematean, urrutiko edo bertatik bertako monitorizazioan edo aldizkako ikuskapen batean zehar aplikatzen da mantentze-lan zuzentzailea.

10

Autokontsumoaren
hasiera



